

## **BERMEOKO “SANCTI SPIRITUS” ZAHARREN EGOITZAKO HARRERA ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK**

### **1. KONTRATUAREN HELBURUA**

Bermeoko “Sancti Spiritus” Zaharren Egoitzako harrera zerbitzua kontratatzea.

### **2. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 141. eta 134. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 134. Artikuluak xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

1. Eskaintza ekonomikoan hobekuntzak: 60 punturarte baloratuko da. Eskaintza ekonomikoaren moetea gutxitzen dan %0,2ko, puntu batean baloratuko da.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen Teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 30 punturarte baloratuko da.
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 2 puntu, gehienez 10 puntu. (Proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

### **3. BALDINTZA BEREZIAK**

Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 102.1 artikuluari jarraituz, kontratu hau burutu ahal izateko, gizartearen alorreko honako baldintza berezi hau bete beharko da derrigorrez:

- **HARRERA ZERBITZUA EMAN BEHAR DUTEN PERTSONEK ELBARRITUAK IZATEA.**



#### **4. HARRERA ZERBITZUKO LANGILEAREN FUNTZIO ETA BETEBEHAR NAGUSIAK:**

1. Telefonozko deien harrera eta harrera pertsonala Zaharren Egoitzara sartzen diran pertsoneri.
2. Aplikazio informatikoen bidez datuak grabatzea.
3. Fitxeroak eguneratu eta eguneratuta mantentzea.
4. Ordenagailuaren bidez txosten, zerrenda eta agiri desbardinak lantzea.
5. Agiri eta fitxa desbardinak betetea.
6. Heltzen dan posta klasifikatu eta erregistratu.
7. Kanpoko beste erakundeetan oinarrizko gestioak egitea.
8. Iragarkien taula eguneratuta mantentzea.
9. Egoitzako Administrari Laguntzaileari laguntza emotea.
10. Lanpostuaren jarduerarako eskatutako prestakuntzarekin bat datozen beste eginkizun batzuk betetzea.

#### **5. ZERBITZUA EMOTEKO TOKIA**

“Sancti Spiritus” Zaharren Egoitza (Bermeoko Tonpoi Bidea z/g)

#### **6. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

Kontratuaren iraupena lau urtekoa izango da. (2011ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra)

#### **7. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa 180.279,28 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 32.450,27 €koa da.

Kontratuaren prezioa lehenengo urterako, 45.069,82 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 8.112,57 eurokoa da.



Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daikee, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela: Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko dau zein dan prezioa eta zein dan BEZari dagokion diru zenbatekoa.

## **8. EUSKARAREN ERABILERA**

Ezinbestekoa da harrerako langileak euskaraz berba egiteko eta idazteko gaitasuna eta maila izatea. Zerbitzua euskaraz emotea beharrezkoa da.

Bermeon, 2010eko uztailaren 9an

